

ALDE ZAHARRERA IBILGAILUZ SARTZEKO BAIMENEN ARGIBIDEAK

1.- ZEINTZUK DIRA OHIKO BAIMENAK?

Alde Zaharrear bizitzeagatik, alde zaharrear garaje bateko erabiltzailea izateagatik, herriko gremio edo merkatari izateagatik edo bigarren bizitexea alde zaharrear kokatuta izateagatik, udalak, alde zaharrera ibilgailuz sartzeko baimena eman badizu, zure kasua OHIKO BAIMENEN artean dago.

***Gainerako kasu guztiak behin-behineko baimenak dira:** Egun baten sartu beharra izateagatik edo aurreko paragrafoan jasota ez dagoen arrazoi zehatz bategatik, udal baimena baduzu, horrek ez du ohiko baimen izaera eta erabakian jasota dagoen epea izango da aplikagarria, hau da, ez zaio luzapen automatikorik aplikatuko.

2.- DAUKADAN BAIMENA OHIKOA BADA ZER EGIN BEHAR DUT?

Ezer ere ez. Udalak modu automatikoan, beste urte beteko luzapen bat egingo du eta ordura arte duzun baimena indarrean egongo da.

***2021 urtean zehar, Udalak kasuz kasu egoerak aztertu eta emandako baimen guztien egoera eguneratuko du, baimenaren arrazoa errealitatearekin bat datorrela bermatzeko.**

3.- DAUKADAN BAIMENA OHIKOA EZ BADA ZER EGIN BEHAR DUT?

Zure baimena behin behinekoa bada:

1.- Erabagian jasota dagoen **epea begiratu**. Epe hori igarota, ez zenuke alde zaharrera ibilgailuz sartzeko baimenik izango eta isuna jasoko zenuke.

2.- **Alde zaharrera ibilgailuz sartzeko beharrezana baduzu eta baimena iraungita baduzu, eskari berri bat egin** behar duzu **BERHAZ Bulegoan edo Egoitza elektronikoa**, izenpetu eta sarrera erregistroa emanda, Udaltzaingoak kasua aztertu eta baimen berria, epe berriarekin luzatzeko.

EDOZEIN ZALANTZA IZATEKOTAN DEITU 010 ZENBAKIRA.

Gogoratu: **ASTELEHENETIK ZAPATURA, GOIZEKO 8:00ETATIK 13:00TARA** zamaketa lanak egiteko, Alde Zaharrera sartzeko aukera dagoela baimenduta egon zein ez.

Bermeon, 2020ko abenduak 15ean

